



**BOILLO, Mari Mar; KORTAZAR, Jon (arg.)**  
**Egungo euskal literatura eta futbola**

Leioa : Euskal Herriko Unibertsitateako  
 Argitalpen Zerbitzua, 2020  
 218 or. : ir. ; 23 cm  
 ISBN: 978-84-1319-281-9

Euskal Herriko Unibertsitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz *Egungo euskal literatura eta futbola* liburua argitaratu berri du. Argitaratzaileak LAIDA ikerketa taldeko Jon Kortazar Uriarte katedraduna eta Mari Mar Boillos Hezkuntza Fakultateko irakaslea izan dira, biak ala biak futbolzale amorratuak, gurasoengandik jasotako zaletasuna izanik.

Lehendabiziko aldiz egiten da euskal literaturan Futbolak duen presentzia eta eraginarekin azterketa zabal eta sakona. Lehendabiziko aldiz *Egungo euskal literatura eta futbola* delako lanarekin, jakina eta horregatik editoreek galdetzen diote euren buruari zergatik literatura eta futbola uztartzea, alde batetik, eta, bestetik, ba ote dagoen futbolari buruzko euskal literaturarik. Sarreran bertan editoreek aitortzen digute gaia nahiko landu gabe dagoela gure artean, baina gure gertuko literaturetan (gaztelaniaz egiten den literaturan, nagusiki, dela Espainia aldekoa dela Latino Ameriketara jatorria duena) izan ditu berri bere mugarririk: bat aipatzearen, Jorge Valdanoren *Cuentos de fútbol* (1995) izango genuke. Euskal literaturari dagokionez, Jon Kortazarrek eta Mari Mar Boillosek jakitun jartzen gaituzte estudio hau nondik abiatzen den, zeintzuk diren bere mugak eta inspirazio-iturriak. Inspirazio-sorburuen artean, jakina, euren futbolzaletasuna, familiagandik jasoa, dago baina baita Yvette Sánchezek katedradunak 2018an Suitzako bere unibertsitatean antolatutako mintegi bat: "Literatura eta Kirola". Futbol-literaturak hizkuntzaren irakaskuntzan duen gaitasunaz eta futbolak euskal literaturan (ere) duen balioaz konturatu ziren hitzaurrearen egileak.

Lanaren argitaratzaileek gaztigatzen gaituzte euren lana hiru zatitan bananduta eta partitua eman dutela: Lehena "Ikerketa" da; bigarrena, "Didaktika" eta hirugarrena, "Sorkuntza".

Lanaren hitzaurrearen jarraipen bezala uler daiteke Yvette Sánchez Suitzako Unibertsität Gallen-eko katedraduna eskaintzen duen testua. Arestian aipatutako 2018ko mintegian aurkeztuak, hausnartuak eta ondorioztatuak biltzen ditu betiere futbolak literaturan eginiko ibilbideari erreposoa eginez. Jakina, eremu hispanikoa da arreta gehien ekartzen duena hasierako ekarpen mamitsu honetan. Hainbat adibideren artean, Eduardo Galeanok (1940-2015) egindako arbitroari eskainitako omenaldia du aztergai, gerora etorriko diren azterketak testuinguratzeko abiapuntu ederra eskainiz.

Aiora Sampetro filologoaren lana da lehenengoa eta lehenengo lana izateak badu bere zergatia; izan ere, hasierako bere ekarpenean filologo beasaindarrak ikuspegi orokor bat ematen digu futbolak euskal literaturan duen presentziarena. Liburuaren hitzaurrean antzematen zena, hemen konfirmatu egiten da: "euskaraz futbolaren inguruan eraikitako eleberri osoak aipatu beharko bagenitu, esku bateko hatzez kontu genitzake" (27). Batzuk aipatzearen, Etxeberria anaia zarauztarren *Ez dadila eguzkia sartu* eleberria dugu, batetik. Bestetik, Juan Mari Irigoienek *Derbia* eta (aurretik argitaratua) *Odolean neraman* narrazioa dugu. Aurreko adibideetatik aldentzen dira ondorengo adibideak, baina aipatu behar dira: Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* eta Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua*. Futbola presente dago, baina ez da elementu zentrala (ez behintzat aurreko hiru adibideetan bezainbeste).

Euskal literaturan futbola ez da mitifikatzen (Euskal Herrian egin den erdal literaturan agian mitifikazio eta epikotasun bat izan da, agian tradizio Hego Amerikar baten eragi-

nez), eta Aiora Sampedrok erakusten dut futbolak euskal literaturan azterketa berezia behar duela. Arestian aipatutako lanak direla eta, batez ere Irigoien, Atxaga eta Uriberen lanei eskaintzen die azterketa bereziagoa. Identitatearen pedagogiarako eta memoria kolektiboan in-terpretatzeko baliagarria suertatu da futbolaren motiboa euskal literaturan eta horixe erakusten saiatzen da filologo beasaindarra, oso modu iradokitzaile eta zorrotzean.

Ondorenean Karlos del Olmo filologo eta itzultzailearen ekarpena dator. Karlos del Olmok futbolaren eta antzerkiaren artean dagoen teatralitate eremu komunak aztertzen ditu. Edo beste era batera esanda, antzerkia ulertzeko eta azaltzeko erabiltzen diren tresna aka-demiko eta semiotikoak erabiltzen ditu futbolak duen arrakasta sinbolikoa agertze aldera. An-terkiak eta futbolak teorizatu dituztenen hainbat aipamen eta erreferentziak erabiliak izan dira Karlos del Olmoren azterketa mamitsu horretan, eta ekarpen interesgarria da ez soilik futbola eta euskal antzerkia alderatzeko: futbola eta antzerkia oro har aztertzeko ere baliagarria da. Baina bada lan bat Karlos del Olmok bereziki kontuan hartu duena: Mikel Paga-dizabalek, Nagore Aranburuk eta Anartz Zuazuk idatzitako *Jokoz kanpo* (2017) da hori berori. Euskaraz egindako bakarretakoa non bizitza eta futbolaren arteko harremanaz egiten den an-tezlan bat. Gaztelaniaz egindako *Yo soy Pichichi* (2018) antzezlanari ere eskaintzen zaio (maila apalago batean) arreta.

Ondorenean Jon Martin-Etxebesteren ekarpen bitxi eta originala dator: “Zangoak eta oinak. Futbola eta bertsolaritza”. Berak, bertsolaria izaki, barrutik ezagutzen du bertsolaritzak zenbat duen jolasetik eta jokotik. Horrek bidea ematen dio ahozko literaturako genero hau futbolaren munduarekin alderaketa bat egiteko eta, era berean, bertsolaritzan futbolaren gaiak eman duen esparrua aztertzeko. Bertsolariek eurek futbolarekin izan duten harremana izan da abiapuntua bertsotan gogoeta umoretsu edo kritikokoak egiteko. Futbolaren gehiegi-keriak (merkantilismoa, hooligan-keriak, indarkeria, derbien lehia, e.a.) hainbatetan kanta-gai izaten dira eta bertsotan aritzeko eremu emankor bihurtu. Futbolak bestalde, dilema etikoak xehetasunez jorratzeko egoera komunikatiboak eskaintzen ditu hainbat bertso-saiotan: horien guztien bertsoaldi aukeratuak eskaintzen dizkigu Jon Martin-Etxebestek, lan antologiko bat burutuz. Nahiko errepaso osatua ematen dio Jon Martin-Etxebestek honi guztiari, lan aitzindari bat burutuz.

Ikerketa atalaren barruan betiere Jon Kortazar Uriartek Ramiro Pinilla (1923-2014) idazle bizkaitarraren *Aqella edad inolvidable* nobela aztertzeari ekiten dio, futbolarekin, euskal futbolarekin duen harremana esploratuz. Baina eleberri horretan futbolaria hurreratzeko modua ez da egiten era zuzenean: Ramiro Pinillak bere haurtzaroan kromoei ezagututako Souto Menaya Athletic-eko jokalariairen istorioa da inspirazioa. Eta hau esanguratsua dela erakusten digu Jon Kortazarren azterketak; izan ere, futbolak dituen balioetako bat da haur-tzaroko nostalgia (futbolarien bildumak egitea kromoekin, haurtzaroan etxean entzundako istorioak futbolari buruz eta beren igoera sozialari buruzkoak...) aktibatzen duen gaitasuna. Souto Menaya, bestalde, ez da edozein taldetako jokalaria ohia: Bilboko Athletic-eko jokalaria ohia da eta horrek, Gerra Zibilaren osteko giroan zenbait afera identitario, politiko eta pote-rearen kontraktora garamatza. Souto-ren familia, adibidez, ez da nazionalista, sozialista baizik. Beraz, abertzaletasuna eta erlijioa ez dira Athletic-ekin konpartitzen dituen ikuspegiak: baina Athletic bezalako fenomeno futbolistikoak (kapital kultural handikoa) eskaintzen dio, istorioan zehar, Souto Menayari bere haurtzaroko aldi “bedeinkatua” berreskuratzeko au-kerak, bere buruarekin topatzeko aukera. Hori da behintzat, Jon Kortazarrek azterketa hone-tan egiten duen irakurketa.

Miren Gabantxo irakasleak, bestalde, “*El otro árbol de Guernica* (1967). Identitate berria, gizon berriak. Frankismoa, Espainia eta exilioko umeen erabilera ideologikoa 1960ko hamarkadan” delako atala jorratzen du. Izan ere, *El otro árbol de Guernica*-ren elementue-tako bat euskal ume exiliatuek duten futbolarekiko (Athletic Bilbao-rekiko) lotura da. Jakina, Gerra Zibilaren garaian Euskaditik hainbat haur izan ziren erbesteratuak gerraren arriskue-tatik babesteko eta Luis de Castresanaren eleberri honek errealtate hura agertzen du lite-raturan lehendabiziko aldiz. Luis de Castresana bera izan zen “gerrako haur” horietako bat, orduko Eusko Jaurlaritzak antolatuta Belgika alderako bidaia egin behar izan zuena beste

euskal haur askorekin. Baina eleberria argitaratua izan zeneko garaiak (Franco diktaduraren erregimenean) baldintzatu zuen gatazka humanitario hura erakusteko modua. Miren Gabantxok ez du eleberria soil-soilik aztertzen: 1969an egin zen zinemarako adaptazioa ere kontuan hartzen du eta alderatu, aztertu zein baloratu egiten ditu produkzio biak. Bai eleberrian bai filmean kontaktzen denak indarrean zegoen erregimenarekin ezin zuenez tupust egin, estrategia narratibetan zer nolako izkinak eta erregateak egin behar izaten diren agerian uzten saiatzen da Miren Gabantxo irakaslea. Filmaren kasuan, kapitulu honen egileak erakusten du erregimenak nahi zuen Espainiaren irudi berriarekin bat datorrela eta horretarako filmak sakondu egiten duela eskuratze kulturalako estrategia ikus-entzunezkoetan.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den José Antonio Morlesín-ek, bere aldetik, “Futbolaren irudikapena euskal literaturan: futbol iruditeria eta euskal futbol taldeen ikusizko nortasunaren presentzia liburu-azaletan” delako kapitulua jorratzen du. Jose Antonio Morlesín Arte Ederretako Fakultatean irakaslea da eta kapitulu honetan hasieratik erakusten du liburu azalen irudiek lotura zuzena izan dezaketela liburu literario baten edukiarekin. Jakina, Morlesín-en azterketa futbolaren iruditeriak (“euskal” literaturako) liburu-azaletan duen presentzian zentratzen da eta, adibide bisualak emanez, portadaz portada edo azale azal analisi eta deskripzio horiek egiten dihardu kapituluaren zehar, kapituluaren hasieran azalduak metodologiari jarraiki. Azaleko irudien balio metonimiko edota metaforikoa azaltzen ahalegintzen da egilea behin eta berri, kasuz kasu, eta modu didaktikoan hainbat kontzeptu grafiko azaldu ere egiten ditu.

“Didaktika” delako lan honen bigarren atala Ana Merino (University of Iowa) irakaslearen ekarpen honekin hasten da: “Futbolaren erabilera pedagogikoa humanitatean esparruan”. Oso modu testimonialean, unibertsitate mailan gaztelania (bigarren hizkuntza legez, edo gaztelaniaz alfabetizatze) lantzeko Ana Merinok bere estrategiak azaltzen dizkigu. Beterie, bere ikasleen artean futbolarekiko dagoen interesaz baliaturik, Estatu Batuetan hizkuntzaz eta literaturaz gogoetatzeko eta gozatzeko hainbat adibide, baliabide, ariketa, eztabaida eta gogoetagai erakusten dizkigu. Erabilitako baliabideok, jakina, futbolarekin nola edo halako lotura dute eta prosazko testuak, poemak, marrazki bizidunak, komikiak eta iruditeriak izan daitezke.

“Didaktika” ataleko bigarren ekarpena Mari Mar Boillos irakaslearena da: “Futbola hitz bihurtzen denean. Futbol-literaturaren bidez euskara lantzeko tresnak Lehen Hezkuntzan”. Hizkuntza eta Literaturaren didaktikaz ari garelarik, Mari Mar Boillos-ek gogorarazten digu bien arteko dikotomia, hizkuntzaren eta literaturaren artekoa, alegia, gaindituta dagoela dagoeneko (edo gaindituta egon beharko litzatekeela). Lan honetan literaturak hizkuntza gaitasunak lantzeko dituen potentzialitatea azaltzen saiatzen da eta horretarako futbol-literaturaren adibide batzuk erabiliak izan dira: Andoni Egañaren *Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?*, alde batetik; eta Gaizka Arostegiren *Txopo* eleberria, bestetik. Horiekin biokin egin daitezkeen jarduerak eta jorratzen ahal diren alderdi linguistikoak deskribatu eta proposatzen ditu egileak, benetako ekarpen didaktikoa eginez.

“Sorkuntza” delako hirugarren eta azken atalean hiru testu literarioko bildumatxoa dugu. Pablo García-Casado poetak “Abadia” izenburua duen testua eskaintzen digu. Manuel Rivas kazetari eta idazleak “Uzeko misterioa” narrazio laburra plazaratzen du euskaraz. Itzulpenak Juan Kruz Igerabidek eginikoak dira. Bukatzeko, Karmele Jaioren ipuin literarioa daukagu: “Gure pasioak”, errelato bat non senar-emaztearen artean futbola baita elementu bat pasio bilakatua izan dena eta emaztearentzat tresna bilakatu dena fikziozko liburu arrakastatsu bat argitaratzeko. Jakina, hiruretan futbola nola edo hala dago presente eta sorkuntza lan xume hauek lan honi borobiltasuna ematen diote.

*Barandiaran Amarika, Asier*